



2023ko urriak 29

Zorionak hona hurbildu zareten guztioi! Eskerrak benetan!

Azken bi urteetan milaka herritarrok Bilboko kaleetan barrena Hezkuntza Legearen egitasmoari gure desadostasuna adierazi diogun bezala, gaurko honetan, Donostiako kaleak bete ditugu, "Euskal Eskola Publikoaren alde, Hezkuntza Lege honi ez" aldarrikapena oihukatzen.

Tamalez, orduko kezkek areagotu baino ez dira egin. 2022ko apirilean Hezkuntza Akordioa sinatu zenetik, ituntze unibertsala indartu du Hezkuntza sailak. Herritar guztiona eta benetako zerbitzu publikoa den Euskal Eskola Publikoa sendotzeko neurriak hartu beharrean, sare pribatu-itunduaren alde jokatu du behin eta berriro.

Beste horrenbeste esan dezakegu Hezkuntza Legeari buruz:

- Lege honek **ez du eskola publikoa hezkuntza sistemaren erdigunean kokatzen**. Izan ere, **publiko-pribatu sistema duala betikotu** nahi du, *Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publiko* asmakizunaren eufemistiko baten bidez. Horren ondorioz, **sare publikoa eta pribatua berdindu** egiten ditu, gauza bera balira bezala.
- **Ez du eskola publikoa lehenesten**, aldiz, itunpeko ikastetxeei aro luze baterako garapena zein finantzaketa bermatzen die.
- **Ez dio erantzuten eskola publikoak dituen erronkei hezkuntza sistemaren erreferentziazko sare nagusi bihurtu dadin**.
- **Ez du hartzen neurririk ikasle guztiak euskalduntzeko**, ikastetxeen esku uzten du ardura hori baliabideak bermatu gabe. Eusko Jaurlearitzak argi eta garbi utzi du egungo **hizkuntza-ereduek indarrean jarraituko dutela**, euskalduntze prozesurako eraginkorrak ez direla denok jakin arren.
- **Ikastetxe guztiak merkatuaren logikan** sartzen ditu.
- Hezkuntza sistemak duen **segregazio arazo larriari aurre egiteko** proposatzen dituen neurriak azalekoak dira, ez baitu arazoaren sustraira jotzen.
- **Ez du hezkuntza laikoa bermatzen**.

Bestalde, gogorarazi beharra dago, Euskal Eskola Publikoaren aldeko hainbat eragilek ekarpen sendoak aurkeztu genizkiola Hezkuntza Legeari, joan den ekainean, Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean. Alabaina, bertan egindako ekarpenak ez dira jaso Hezkuntza Legean. Beraz, gure hezkuntza komunitatearen hitza eta partaidetza ez dira aintzat hartuak izan, ezertarako ere ez. **Eusko Jaurlearitzak ezingor egin dio Eskola Publikoaren alde egindako eta esandako guztiari**.

Horregatik guztiagatik, argi eta garbi adierazi nahi diogu **gure ezezkoa Hezkuntza Lege honi!!**

Gure eredia Euskal Eskola Publikoa da, **unibertsala, inklusiboa, orekatzailea, anitza, euskalduna, laikoa, kalitatezkoa, hurbila eta doakoa**. Eskola publikoa **denona eta denontzat da**. Denona, bertako langileok, ikasleok eta familiok elkarlanean osatzen dugulako, eta denontzat, **ateak zabalik** dauzkalako mundu guztiarentzat. **Eskola publikoa benetan erdigunean** jarriko duen hezkuntza nahi dugu, **gizarte kohesioa eta berdintasunezko hezkuntza euskalduna** bultzatuko dituen!!!

Hartara, dei egin nahi diegu Legebiltzarreko alderdi guztiei, hurrengo asteetan eztabaidatuko dituzten zuzenketa harira, Legearen sakoneko mamia birpentsatu eta bertan behera utz dezaten sare pribatuko ikastetxeen interes partikularrak mantentzen dituen lege hau, guztiona den sare publikoa bazterrean utziz.

Horretxegatik, Eskola Publikoak inoiz jasoko duen eraso handienaren aurrean, zera aldarrikatu nahi dugu:

EUSKAL ESCOLA PUBLIKOAZ HARRO!!! GORA GUZTION EUSKAL ESCOLA PUBLIKOA!!! HEZKUNTZA LEGE HONI EZ!!!